

## **KONTROL MOZIOA**

### **TOPO-IGAROBIDE PROIEKTUAN GARDENTASUNA DELA ETA**

Axier Jaka Goikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko urriaren 19an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Kalifikazio nagusi bat jarri badiezaiokegu Topo-igarobidearen egitasmoari gardentasun eta fidagarritasun faltarena da.

Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta ETS-k egindako kudeaketan: bai urtetan ezagutarazi dizkiguten eskari-azterlan zeharo ezberdin eta batzuetan kontrajarriengatik; bai 2012an egitasmoa geldiarazi izanagatik, bideragarritasun falta argudiatuz, eta aurtan, ordea, proiektua aldaketa gutxiarekin berrabiarazteagatik; bai proiektuaren ustezko aurrekontu aldakorrenatik (beti goranzko joeran); bai proiektua juxtu hauteskunderen ondoren eta udaran onartzeagatik; bai alegazio-epea inolako informazio kanpainarik gabe irekitzeagatik; baita Lugaritz-Mirakontxa eta Mirakontxa-Easo eraikuntza prozesuen idazketak lizitazioan jartzeagatik ere oraindik herritar eta erakunderen alegazioak erantzun gabe daudenean.

Bestetik, eta tamalez, PNV eta PSOEn Udal Gobernuak jokaera bera izan du hiriarentzat eta herritarrentzat hain erabakigarria izan daitekeen proiektu honekin. Hasteko, maiatzean Informazio-azterlana onartu ondoren EuskoTreneko obren batzorde ez-iraunkorra deitzeari uko egin zion Udalak alegazioak egitean deituko zuela esanez; bigarrenik, alegazioak egin ondoren talde politikoei helarazteari uko egin dio; hirugarrenik, axolagabetasun harrigarri eta kezkarria azaldu du hirigunean eta dBus udal-zerbitzuan izan ditzakeen eraginen inguruan eta, laugarrenik, Udalbatzaren uztailko bilkuran “gizarte eztabaida instituzio, elkarte eta bizilagunen artean” eskatzen zuen moziari ezezkoa eman zion. Azkenik, urriaren 19ko batzordeetako interpelaziori erantzunez, gardentasunaren inguruko hitz politikak idatziz jarri arren, batzorde-ez iraunkorra deitzeko eskaera berriz egin denean argudiatu du ez duela deituko alegazioen erantzunak izan arte.

Gertakizun eta jokaera horiek oso kezkarritzat jotzen ditu EH Bilduk eta, noski, aurkako edo aldeko iritziez haratago, bai talde politikokoak bai bizilagunak ziurgabetasun eta babesgabetasun egoera batean uzten gaituzte proiektu honen aurrean. Hau guztia dela-eta, eta kontuan hartuz aipatutako batzordean Udal Gobernuak ez zuela inongo aurrerabideren

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

berri eman gardentasunaren kudeaketari dagokionez, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari EuskoTreneko obren **udal batzorde ez-iraunkorra** lehenbailehen deitu dezala, talde politikoak eta bizilagunen ordezkariak topo-igarobideari dagokion ezein pausoren inguruan eztabaidatu eta informatzeko.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lidera dezala **donostiarrentzako gardentasun eta informazio prozesu bat**, bai batzar-informatibo publiko eta irekiak antolatuz, bai alegazioen erantzuna helarazteko bilerak deituz, baita lanen ondorioak paira ditzaketen bizilagun, dendari eta taldeekin bilduz ere.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari topo-igarobidearen **erakunde-arteke jarraipen-batzordean** Donostiaren, udal garraio eta mugikortasun ereduaren eta, batez ere, bizilagunen interesak defenda ditzala.

Donostian, 2015eko urriaren 23an

Axier Jaka Goikoetxea  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**